









# aurkibidea

## Sarrera

**5** Iñigo Urkullu  
Lehendakaria eta Innobasqueko  
Ohorezko Lehendakaria  
Alberto García Erauzkin  
Innobasqueko presidentea

**8** Zer gara  
Innobasque zifratan

**10** Nortzuk gara

**10** Bazkideak  
**12** Gobernu-organoak  
**14** Barruko taldea

**16** Non eta nola

**18** Zer egiten dugu

**19** Zer egiten dugu  
Sozializazioa eta  
komunikazioa

**26** Zer egiten dugu  
Berrikuntzaren Euskal  
Sistemari Bultzada

**32** Zer egiten dugu  
Eraldaketa  
sozioekonomikoetarako  
dinamikak

**38** Zer egiten dugu  
Gizarte-Berrikuntza

**32** Zer dira  
**33** Eredu eraldatzaileak, Fabrikazio  
aurreratua, Laugarren Sektorea  
**34** Eko-berrikuntza  
**36** Efi-osasuna

**40** Konektatuta  
gaude

**42** Zer ikasi dugu

**48** Norantz goaz  
III. Zikloa

**40** Beste erakunde batzuetako  
gobernu-organoak  
**41** Sareak  
Diplomazia berritzailea

**50** Epilogo  
Txema Villate  
Zuzendari nagusia

# ELKARREKIN BERRITZEN JARRAI DEZAGUN



**IÑIGO URKULLU**

Lehendakaria eta Innobasqueko  
Ohorezko Lehendakaria

Ezagutza eta berrikuntza gure Giza Garapen Iraunkorrerako Estrategia sostengatzen duten oinarritzko bi habe dira. Euskadi berrikuntzarloan Europaren abangoardian kokatzea erronka kolektiboa da, botere publikoen konpromisoa eta gizarte osoaren inplikazio aktiboa eskatzen dituena, Memoria hau osatzen duten proiektuetan islatzen den gisan.

Bide bati ekin diogu, ezinbestekoa da elkarrekin lankidetzan eta berritzen jarraitzea gure herrialdearen oraingo eta etorkizuneko ongizatea bermatzeko.

Zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren alde apustu egiteak eta alor horietan inbertitzeak enpresaren produktibitatean eta lehiakortasunean irabaziak dakartzkigu, kalitate handiagoko enpleguak sortzen eta sozialki kohesionatutako lurraldea izaten laguntzen digu. Hori lortzeko, erakunde publikoek eta pribatuek bat egiten dugu, jarduera-eremu berbera konpartitzen dugu:

- **Estrategia.** Konpartitzen dugu. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza 2020 Plana ontzat eman dugu. Plan horren egitekoa ongizatea, hazkunde ekonomiko iraunkorra eta enplegua hobetzea da. Ikerketa- eta berrikuntza-politika konpartitzen dugu, espezializazio adimendunean eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarearen eraginkortasuna hobetzean oinarritua.
- **Lehentasunak.** konpartitzen ditugu. Itzulkin ekonomiko eta sozial handiagoko hiru arlo estrategiko

ditugu ardatz: energia, fabrikazio aurreratua eta biozientziak/osasuna. Elikadura, habitat hiritarra, ekosistema eta industria kulturalak eta sortzaileak alorrekin lotutako aukera berriei ere so gaude. Hazkunderako eta aurrerapenerako proiektu bat dugu gure herrirako.

- **Ahalegin inbertsiogilea.** konpartitzen dugu. Gure BPGaren ehuneko bat, Europar berrikuntza-maila handia duten eskualdeetako BPGarekin pareagarria dena, I+G+b-ra bideratzen ari gara. Horrela, inguruabar ekonomiko eta gizarte-inguruabar zailetan berrikuntzan inbertsio publiko/ pribatua ez dugula jaisten frogatzen dugu. Ahaleginak bateratzea beharrezkoa da garapen ekonomikoa azkartzeko gai diren berrikuntza-proiektuak sustatu ahal izateko.

- Bat gatoz **talentua** duten eta berrikuntzarekin konprometituta dauden pertsonak beharrezkoak ditugun eta Euskadi berrikuntzaren alorrean erreferente bihurtuko duten eraldaketa-prozesuak gauzatu ahal izateko ditugun aktiborik onenak direla pentsatzean.

Memoria euren ahaleginarekin eta konpromisoarekin berrikuntzak gure herrialdeko aurrerapena hazkunde adimendun, iraunkor eta integratzaile baterantz zuzendu dezan laguntzen duten pertsona guztiei eskainitako eskertza da. Memoria honek elkarrekin batera berritzen jarraitzea gonbidatzen gaitu.



ALBERTO GARCÍA ERAUZKIN

Innobasqueko presidentea

## ELKARLANEAN ARITZEA, BERRITZEKO AUKERA

Euskal erakundeok lankidetzan are gehiago aritzeko eta sektore, diziplina eta aukera berrietara irekitzeko gaitasuna dugu. Lankidetzan ahalegina egitea eta konfiantza edukitzea eskatzen dituen prozesua da eta, nahiz eta bidea beti erraza izan ez, handinahikoagoak diren xedeak erdiestea ahalbidetzen digu, urrunago iristea.

Euskal enpresa-ehuna %99an ETEez osaturik dago. Horietako gehienak enpresa txikiak edo

mikroETEak dira, arintasuna, malgutasuna, talentua eta irekiera dituztenak eta, beraz, kokapen ezin hobea dutenak handinahiko proiektuei lankidetzan aurre egiteko. Korporazio handiak ere jabetzen dira *start up* eta erakunde txikiak adierazten duten berrikuntza-iturriez eta balio berezia ematen diote lankidetzan ekimenak lantzeko lehenengoek duten gaitasun eragileari. **Gaitasunak batuta, ziurgabetasuna eta arriskua murriztu egiten dira** eta emaitzak konpartitu egiten dira.

Lankidetzan aritzerakoan, bidaide ditugun kideak ez ditugu gehiegi ezagutzen eta ekitera goazen bide horren patua zein izango den ere ziurtasunez ez dakigu; beraz, normala da mesfidantza sortzea. Baina funambulismo-ariketa hori egitean sortzen dira lehendik dauden merkatu-segmentuetan jarrera lehiakorrei eustea ahalbidetzen duten berrikuntzak eta haiek gauzatzen diren ekosistema eralda dezaketzen berrikuntzak. Horregatik, finkatutako kultura berritzailearekin eta esploratzeraz

irekiarekin konfiantza-inguruneak sortzea *sine qua non* baldintza da lankidetzaren bidezko benetako berrikuntzak erne daitezen.

Hainbat erakunde, jada, bide ezezagun horitan barrena dabilta berrikuntza ahaltsuagoetara iristeko: eragile desberdinekin, baita euren erakundeak eta sektorekoak ez diren eragileekin ere, lankidetzan ari dira eta berritzeko modu irekiagoak gauzatzen dituzte. Aldaketa hori **lankidetzaren horiek berrikuntza azkartzen dutela** eta oso-oso lehiakorak diren merkatu-jarrerak sortzen dituztela ebidentzian oinarritzen da.

Beste ekonomien gaitasun berritzailea areagotzea, aldaketa teknologiko azkarra, produktu eta zerbitzu berrien eskaera amaigabea edota, produktuen eta zerbitzuen

gero eta bizitza-ziklo laburragoa nahikoa pizgarri dira ez dagoela erakunderik, nahiz eta handia izan, erronka horiei bakarrean aurre egin diezaiokeenik ondorioztatzeko.

Innobasquen mila bazkide gara, guztiak ere, berrikuntzarekin konprometituak: ETEak enpresa handiak, ezagutza- zentroak (unibertsitateak, zentro teknologikoak eta beste erakunde batzuk), administrazio publikoak eta pertsona fisikoak; azken batean, euskal gizarteko aberastasunaren ordezkariak. Elkarrekin, ingurune suspergarriak, konfiantzazkoak sortzen ari gara, guztiok ere bertan gure gaitasunen potentziala gara dezagun. **Mila bazkide, mila gaitasun.** Eta zeharkako lankidetzaren gehiago eragingo bagenu? Eta itun publiko pribatuen sakonduko bagenu?

Finkatutako berrikuntza-kultura, *networking* sareetara atzipena -bai formalak bai formalak ez direnak, presentzialak, on line, aditueta eta bazkide potentzialetara eta kolaboratzaileetara atzipenarekin-edukitzeaz gain, faktore erabakigarria izango da, azken batean, lankidetzaren arrakastari eragiten dioena baita, sarri askotan, aintzakotzat hartzen ez bada ere. Innobasque moduko figurek izaera **desberdineko erakundeen artean, sektore artekoetan, eragile anitzekoetan, publikoaren eta pribatuen artekoetan loturak errazten dituzte**, beharrezkoa dena euskal ekosistemaren antzekoak diren ekosistema konplexuetan eta trinkoetan. Berrikuntza deituriko leku ezezagun horretara daraman bidea seguruagoa bihurtzen duten sareak dira. Beraz, ez bairik gabe, egin beharreko bidea da.



# Zer gara

Innobasque **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragile berezi** bat da, Eusko Jaurlaritzari berrikuntza-politika berriak diseinatzeko, ezartzen eta bultzatzen laguntzen dioena. **Irabazi asmorik gabeko eta erabilgarritasun publikoko elkarte pribatu bat** gara, 1.000 erakunde bazkide baino gehiagok osatua. Lankidetzaren sare eraginkorra osatzen dugu, enpresek, erakunde publikoek, eragile zientifiko teknologikoek eta gizarteak osaturiko itun publiko/pribatua. Elkarrekin belaunaldi oso batentzako proiektu bat eraike nahi dugu, Euskadirentzako lortu nahi den etorkizunik onena.

Berrikuntzan jartzen dugu arreta, izan ere:

- Gizarte-eraldaketaren eta eraldaketa ekonomikoaren eragilea da, Euskadi iraunkor baterantz.
- Alor ugari barnebiltzen ditu eta Euskadiko gizarte-eta ingurumen-erronkak eta erronka ekonomikoak konpontzeko gai diren soluzio berritzaileak erakitzeko giltzarria da.
- Guztion artean sortzen dugun balioa da, elkarrekin lankidetzan, gizartean eragina duten eta hura eraldatzen duten gizarte-harreman eta lankidetzaredu berriak sortuz



# Innobasque zifratan



Bazkide kopurua:  
**1.000**



Mobilizatutako pertsonak:  
**40.000**



Inbertitutako euro bakoitzeko  
**2,6€**ko itzulkina



**10**  
nazioarteko sare



Beste erakunde batzuetako **14** gobernu-organotan



Innobasque-ren **81** erreferentzia akademiko



**408** aurkezpen publiko



**2**  
balantze ekonomiko finantzario ikuskatuta



**220.000** bisitari Innobasque-ko web orrira



**21** profil gizarte-sareetan **37.000** jarraitzaileekin




**3**  
Trending Topics estatu-mailan



**5.198**  
inpaktu komunikabideetan

# Bazkideak

Euskal berrikuntzaren protagonistak





Eta eskaera horiek III. Zikloaren definizioan sartu ditugu.

# Gobernu-organoak



## Zuzendaritza-batzordea

OHOREZKO LEHENDAKARIA

**Iñigo Urkullu**

Lehendakaria

PRESIDENTEA

**Alberto García Erauzkin**

PRESIDENTEORDEAK

**Javier Sotil**

Mondragon Korporazioa

**Roberto Larrañaga**

Confebask

**Iñaki Aranburu**

IK4

**Javier Ormazabal**

Tecnalia

**Fernando Cossío**

Ikerbasque

**Arantxa Tapia**

Eusko Jaurkitzako Ekonomiaren  
Garapen eta Lehiakortasun Saila

DIRUZAINA

**Xabier Gotzon Iturbe**

Kutxabank

IDAZKARIA

**Olatz Fernández**

Uri y Menéndez

Ohorezko bazkideak

**Guillermo Ulacia**

2010-2013ko presidentea

**Pedro Luis Uriarte**

2008-2009ko presidentea



## Agente zientifiko-teknologikoak

### BCAM

Luis Vega

### BIOEF

María Aguirre

### BIOTECHNOLOGY INSTITUTE

Eduardo Anitua

### CIC BIOGUNE

José María Mato

### CIC NANOGUNE

José María Pitarke

### CIC TOURGUNE

Aurkene Alzua

### EUSKO IKASKUNTZA

Iñaki Dorronsoro

### IK4 RESEARCH ALLIANCE

Iñaki Aranburu

### IKERBASQUE

Fernando Cossío

### LEHIAKORTASUNERAKO EUSKAL INSTITUTUA - ORKESTRA

Ignacio María Echeberria

### MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Vicente Atxa

### TECNALIA

Javier Ormazabal

### DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

José María Guibert

### EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Iñaki Goirizelaia

## Enpresa

### AERNNOVA AEROSPACE

Iñaki López Gandásegui

### CAF

Eduardo Etxeberria

### EROSKI

Amable Próspero Galache

### EUSKALTEL,

Alberto García Erauzkin

### GAMESA

Ignacio Martín

### GLOBAL DOMINION ACCESS

Mikel Barandiaran

### IBERDROLA

Asís Canales

### IDOM INGENIARITZA ETA AHOLKULARITZA

Fernando Querejeta

### ITP

Ricardo Martí Fluxa

### IBERMÁTICA INSTITUTUA

José Ignacio del Río

### KUTXABANK

Xabier Gotzon Iturbe

### MONDRAGON KORPORAZIOA

Javier Sotil

### PETRONOR

José Ignacio Zudaire

### SENER INGENIARITZA

ETA SISTEMAK

Jorge Unda

### URÍA Y MENÉNDEZ

Olatz Fernández

## Administrazio publikoak eta enpresen eta langileen erakundeak

### CCOO

Unai Sordo

### CONFEBASK

Roberto Larrañaga

### EUSKO JAURLARITZAKO EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

Arantxa Tapia

### EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, HIZKUNTZA-POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Cristina Uriarte

### EUSKO JAURLARITZAKO ENPLEGU ETA GIZARTE-POLITIKEN SAILA

Ángel Toña

### EUSKO JAURLARITZAKO INGURUMEN ETA LURRALDE-POLITIKA SAILA

Ana Isabel Oregi

### EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILA

Jon Darpón

### ARABAKO FORU ALDUNDIA

María Pilar García de Salazar

### BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Imanol Pradales

### GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Ainhoa Aizpuru

### EUDEL

Imanol Landa

### EUSKO GANBERAK

Pedro Esnaola

### EVE

Pilar Urruticoechea

### EUSKO JAURLARITZAKO LEHENDAKARITZA

Jesús Peña

### SPRI

Alexander Arriola

## Gizartea

### AGUSTÍN ITURRIOZ

Gipuzkoa Berritzen

### ALEJANDRO ECHEVARRÍA

Novia Salcedo Fundazioa

### ANTXON LÓPEZ USOZ

Danobat

### AZUCENA CASTRO

OWL

### BEGOÑA ETXEBARRIA

Novia Salcedo Fundazioa

### JON AZUA MENDIA

E-novating Lab

### JOSÉ IGNACIO ARRIETA

MBN Comunicación

### JOSÉ LUIS LARREA

### JOSÉ MARÍA FRANCO

Lantegi Batuak

### JOSETXO HERNÁNDEZ

Euskalit

### MANUEL SALINERO

Iurisnor

### CAROLINA PÉREZ

AED

### TXOMIN GARCÍA

Euskadiko Kutxa

### XABIER RETEGI

Bazkideen 2 Batzar  
Nagusi 2014-2015

# Barruko taldea

**%84** Lizentziaturarekin  
**%46** Graduondokoarekin  
**%77** emakumeak  
**%23** gizonak



**40**  
 pertsona

• Batez besteko adina:  
**40 urte.**

%64 baino gehiago 30  
 eta 45 urte artekoak

• Diziplinak:  
 Ingeniaritza  
 Ekonomia-zientziak  
 Enpresa-zientziak  
 Kazetaritza  
 Telekomunikazioak  
 Biologia...

## NOLA EGITEN DUGU LAN?



Lankidetzan lan egiten dugu Innobasque sarearekin:


- Testuinguruak bultzatzen ditugu Euskadiko erronka eta lehia nagusiei erantzuna ematearren.
- Sare-lana, lankidetzan eta pertsonen eta erakundeen arteko konexioa sustatzen ditugu.
- Gaitasun eta baliabide berritzaileak mobilizatzen ditugu eta inpaktu sozial eta ekonomikoa sortzen duten proiektuak katalizatu.

## GURE ESTILOA



# 11 gaitasun

Konpromisoa, konfiantza eta koherentzia



**Talde-lana** funtsezkoa da lortu nahi ditugun helburuak eta erronkak lortzeko. “Talde handia izaten laguntzen diguten gauza txikiak” dekalogoia da gure eguneroko lanaren inspirazioa.

## Pequeñas cosas que ayudan a que seamos un gran equipo

1. **ESCUCHA** con empatía y muestra interés por lo que hacen tus colegas. **ENTENDU** konfiantza eratu eta erantzun zehar eratu erantzun.
2. **COLABORA** y recuerda que si necesitas puedes necesitar ayuda. **LAGUN DU** eta gogoratu zure lana besteekin laguntzeko.
3. **RECONOCE** tu trabajo y su contribución y felicítalo por sus logros. **AUZKARTU** berekin lana gero eskertzen, eta zoriondu izan zure kontribuzioa.
4. **REVERDA** las palabras maldecidas. **DOGAROTU** hitz magariak. **PARA FALAR Y ENTENDU** **NEBLETEA GAIKARRAK AGA**
5. **PREMIAR** a tus compañeros. **ESKERTU** lanarekin. **ESKERTU** lanarekin. **ESKERTU** lanarekin.
6. **TEA** con tus amigos. **LAN KIDU** gurekin. **LAN KIDU** gurekin.
7. **TRANSMITE OPTIMISMO** recuerda que es el buen día para tener **BAZKARU** **BAZKARU** gogoratu, berrikuntzarako indarra dauka.
8. **ALICIA LA RED DE SOCIOS** No miedos por tu tiempo en temas que no cumplan las metas. **ESTE** **SOKALTESU** **ORRATZ** **ESTE** **SOKALTESU** **ORRATZ** **ESTE** **SOKALTESU** **ORRATZ**



QR

Deskargatu dekalogoia



## Barneko kudeaketa berritzailea: PERTSONEN GARRANTZIA



Diziplina anitzeko taldea, kultura berritzailea sustatzen duten proiektuak bultzatzeko eta kezkak identifikatzeko eta iradokizunak helarazteko sortua. Kultura berritzailea parte-hartzean eta barneko lankidetzan oinarritzen da.

2015eko 5 ekimen:

1. Elikadura osasuntsua: “Jaten duzuna zara”  
Produktu osasungarriak jatea sustatzea.
2. Lan Flex  
Ordutegi-malgutasuna eta lan ez presentziala sustatzea.
3. Innobasque Talks  
Adituen hitzaldiak, osasunaren inguruko esperientziak ezagutzeko.
4. PIN  
Inpaktu sozial eta/edo ekonomikoko berrikuntza-proiektu pertsonaletarako borondatezko denbora.
5. Travel Innovers & Study Trippers  
Beste erakunde batzuetan trukeak eta egonaldia sustatzea.

# Non eta nola

2014koa eta 2015koa oraindik ere mundu osoko herrialde garatuak ezegonkortzen dituen krisi ekonomikoak markatutako ekitaldiak izan dira. Alabaina, guztiei ez die modu berean eragin: ekoizpen-ereduak berrikuntzari, bere edozein formatan, gehiago menpekoturik dauden lurraldeek neurri txikiagoan jasan dituzte, hain zuzen, ondorioak eta asko sendoturik ikusi dira krisia gainditzen saiatu direnean.

Gauzak horrela, **Global Innovation Index (GII)**, berrikuntza, garapenaren eta hazkunde ekonomikoaren eragile gisa, giltzarri dela aitortu du. Azterketak berrikuntza neurtzen du erakunde, giza kapital, azpiegitura, merkatuen garapena, ezagutza, teknologia eta sormenarekin lotutako 79 adierazletan oinarriturik. Saillapenean ondoen kokaturiko lehenengo hamar ekonomiak Suitza, Erresuma Batua, Suedia, Finlandia, Herbehereak, Estatu Batuak, Singapur, Irlanda, Luxenburgoko eta Danimarka izan dira. Guztiak ere, garapen eta bizi-kalitate handiko herrialdeak.

Horietatik zazpi, estatu txikiak dira, 10 milioi biztanle baino gutxiago dituztenak. Nesta britainiar berrikuntzaren agentzia horrelako lurraldeez ari da bere “When small is beautiful” paper-ean. Gil-ekin bat dator leku horientzako garrantzitsua dela berrikuntzaren olatuan egotea, euren ideiak eta aukerak aprobetxatzea, teknologia eta berrikuntza bultzatzen dituzten gobernuak eta erakunde sendo eta malguak edukitzea esatean. Guztiak berrikuntza herrialdearen zeregina denaren zentzuarekin bizi dute. Nesta-k Euskadi lurralde txiki eta berritzaile horien artean sartzen du.

## EUROPA 2020 ESTRATEGIA

Egoera ekonomikoaren lehenengo sintomak sumatu zirenean, Europak 2010-2020 hamarkadarako “Europa 2020 Estrategia” deituriko plan batez hornituz erreazionatu zuen. Bertan, hiru lehentasun proposatzen dira:

- **Hazkunde adimentsua:** ezagutza eta berrikuntza oinarritutako ekonomia garatzea. Horrek hezkuntza, ikerketan eta berrikuntza eta eraldaketa digitalean errendimendua hobetzea adierazten du.
- **Hazkunde iraunkorra:** baliabideen erabilera eraginkorragoa, “berdeagoa” eta lehiakorragoa bultzatuko duen ekonomia sustatzea.
- **Hazkunde integratzaileak:** gizarteari eta lurraldeari lotuta egongo den enplegu-maila handiko ekonomia sustatzea.

Estrategiak “hainbat ekimen enblematiko” barnebiltzen ditu; horietako bat “Berrikuntzarako batasuna” da, hazkunde adimentsuari lotua eta ikerketara eta berrikuntzara bideratutako finantzaketa eskuratu ahal izateko baldintzak hobetzea xede duena. 2014tik 2020ra 80.000 milioi euro inguruko aurrekontuarekin hornituta, **Horizonte 2020 Esparru Programa** ekimen hori egikaritzeko giltzarri den tresna da.

Esparru Programa hori zientzia bikaina, industria lehiakorrak eta gizarte-erronkak zutabeetan oinarritzen da; gizarte-erronken artean honako hauek leudeke besteak beste: osasuna, bio-ekonomia,



energia, garraioa, aldaketa klimatikoa, gizarte inklusibo berritzailea eta burutsua eta gizarte seguruak.

Horrela, Europa bere lehiakide nagusiei aurre egiteko prestatzen da, hots: Hego Korea, Estatu Batuak, Japonia, Txina, Brasil, India eta Errusia. Azken hiru

horien erritmo berritzailea moteldu egin da azken hilabeteetan, baina Txina Europa zaharrari hurbiltzen ari zaio.

## BERRIKUNTZAREN EKONOMIA


Testuinguru horretan, Euskadik, herrialde txikia, biztanle-dentsitate handikoa eta baliabide naturalik gabeak, **“berrikuntzaren ekonomia”** baterantz aurrera egitea aukeratu du, lankidetzaz publiko pribatuko epe luzerako proiektu bat sustatuz, Euskadi agertoki globalizatu batean lehiatuko den gizarte berritzaile bihurtzeko, enpresa-ehunaren lehiakortasuna gehituz.

Horrela, bere gaitasun berritzaileari dagokionez, Europako Batzordeko **Innovation Union Scoreboard** eta **Regional Innovation Scoreboard-en** arabera, Euskadi 27en Europako buruan dauden herrialdeetatik hurbil dago. Nafarroarekin batera, berrikuntzan nabarmentzen diren eskualde-taldean sartzen den autonomia erkidego bakarra da (bigarren taldea lautik), Europar Batasuneko eskualdeen batz bestekoaren gainetik nabarmen dagoen kokapenarekin.

## EUSKADIK PLAN BAT DU

Hazkunde iraunkorra eta giza garapena Euskadi 2020 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean, Euskadi Europan ikerketaren eta berrikuntzaren erreferente bihurtzeko planean, hartutako konpromisoak dira. Hazkunde adimentsua, ezagutzan eta berrikuntzan oinarritutako ekonomiaren emaitza, espezializazio

adimentsurako herrialdearen estrategiarekin hertsiki lotuta dago. Enpresen, ikerketa-zentroen eta unibertsitateen arteko lankidetzaz eskatzen du Euskadiren lehiakortasuna handitzeko, hazkundera eta enplegua sortzeko produktu eta zerbitzu berriak sortzea ahalbidetuko duten balio erantsi handiko jarduerak identifikatuz.



Iturria: Eustat -Berrikuntzaren adierazleen taula (IUS)- eta Europako Batzordea.



Iturria: Regional Innovation Scoreboard 2014

# Zer egiten dugu

## Sozializazioa eta komunikazioa



▼  
Euskal gizartearen berrikuntzaren kultura sustatzea etorkizuneko ideiak erne daitezen.

## Berrikuntzaren Euskal Sistemari bultzada



▼  
Zientzia, teknologia eta berrikuntza-politiken diseinu, ezarpen eta ebaluazioari laguntza estrategikoa eta elkarlana euskal I+G+b-aren nazioarte kotzean.

## Eraldaketa sozio-ekonomikoetarako dinamikak




▼  
Ekimen berritzaileak Euskadiko erronka sozioekonomikoei erantzuteko eta BPG, enplegua eta bi-zi-kalitatea sortzen laguntzeko.

## Gizarte-berrikuntza



▼  
Gizarte-eskariak eta -erronkei erantzuteko lotura berritzaileen emaitza da. Balio publikoak elkarrekin sortzea du xede erantzukizun-kidetzaren bitartez eta lurralde bateko berrikuntza-gaitasun guztiak aktibatuz.

# Sozializazioa eta komunikazioa



## Zer da

Euskal gizartean berrikuntzaren kultura sustatzea etorkizuneko ideiak erne daitezen.

# 01

### Zabalduz

- Global Innovation Day
- Bazkideen Batzar Nagusia
- Innobasqueren astearteak
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Astea inauguratzea

# 02

### Berrikuntza-Eskola

- FLL Euskadi
- TrainINN Lab
- Berrikuntza-Eskola Mahaia

# 03

### Bazkideak

Innobasque  
Exchange  
Brunch&Learn

Lekandene 2015:  
· Nodriza  
· Bilbao Shapers  
Hub

Bazkideen Ekimen  
Berritzaileak

# 04

### Edukiak

Web orriak  
Gizarte-sareak  
Komunikabideak  
Newsletter-ak  
Memoria  
Jarduera-txostenak  
Itemak





## PROIEKTUAK

### GLOBAL INNOVATION DAY Euskal berrikuntzaren hitzordu garrantzitsua

Euskadin egiten den berrikuntzaren berri ematen du, loturei bide ematen die eta aukerak azaltzen ditu, baita haiek nola aprobetxatu ere. Berrikuntza-joerak etorkizuneko eragile.



## 2014 ..... 2015

### Ikasten dutenengadik ikasteko

Berrikuntzaren eskaintza eta eskaria aktibatuz.


Euskal berrikuntza joera orokorrekin lotuaz: teknologia disruptiboak, berrikuntzaren finantzaketa, berrikuntzarako potentziala, Enpresaren Gizarte-Erantzukizuna (EGE) eta erabaki zentzuzkoak hartzea.

### Berrikuntza aurreratua

Aukerak nola aprobetxatu lankidetzaren sustatuz.

Innobasque sareko eragileen lankidetzari esker eraikitako proiektu parte-hartzailea.

Gaiak honako hauek dira: pertsonak, fabrikazio aurreratua, energia, biozientziak eta ekintzailetza.



#global2014 Trending Topic Espainian ..... #global2015 Trending Topic Espainian



**INNOBASQUEREN ASTEARTEAK**

Euskadin egindako berrikuntza agenda publikoan kokatzen duen plataforma

**2014**

Berrikuntza, user driven innovation, komunikazio, osasun, matematika, emozioen kudeaketa, hiri eta zabalkundera bideratutako zerga-pizgarriei buruzko 8 edizio.



**63**  
erakunde  
parte hartuz

**940**  
bertaratutako

**2015**

8 edizio kudeaketa, ingeniari-tza, kirol, zientzia, teknologia eta berrikuntzaren zabalkundera, robotika, berrikuntza ireki, elikadura eta hezkuntzari buruz.



**76**  
erakunde  
parte hartuz

**757**  
bertaratutako

**ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAREN ASTEAREN INAUGURAZIOA**

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareari balioa emanez. Lehendakaria lehendakari da eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Kontseiluko kide garrantzitsuak ere bertan izaten dira.



**Inaugurazio -hitzaldia**  
Antonio Zea, Adidas  
Fútbol-eko berrikuntzako  
zuzendaria

**2014**

**2015**



**Inaugurazio -hitzaldia**  
Félix Goñi, UPV/EHUko  
Biokimika eta Biologia  
Molekularreko katedraduna


## BERRIKUNTZA ESKOLA

Gazteak zientzia, teknologia eta berrikuntzara erakarriz ikaskuntza-esperientzia sortzaile, taldekako eta zirrargarrien bitartez.


**FLL EUSKADI**, 6-16 urte bitarteko ikasleen bokazio zientifiko teknologikoak eta garapen pertsonal eta profesionalerako beharrezko eskuduntzak sustatzeko lehiaketa hezigarriak. Taldean, proiektu zientifiko eta robotikako joko hezigarri baten bitartez eta hainbat balio integratuz, horien artean, talde-lana, erronka orokor bat ebazten dute.




2014. Erronka: ikaskuntza-eredu berriak



## 2015. Erronka: hondakinen kudeaketa



**TRAININN LAB**, bigarren mailako hezkuntzako ikasleentzako berrikuntza irekiko tailerrak eta soluzioen prototipatua metodologia propioarekin.




**LAN-MAHAIA**: 20 erakunde euskal praktika hezigarri berritzaileenak detektatuz 2016an argitaratuko den argitalpen bat egiteko.

## BAZKIDEAK

Euskadiren eraldaketan bazkideak sartuz konektatu / egin/ berritu egiten dugu filosofiarean.


**INNOBASQUE EXCHANGE:** bazkideen artean lankidetzazko berrikuntza-prozesuak bultzatzeko lan-jardunaldiak *ex profeso* sortutako metodologia propio baten bitartez.



**BRUNCH&LEARN:** Bazkideek euren ezagutza espezializatua konpartitzen dute Innobasque sareko kideekin aukerak sortu ahal izateko.



14 edizio ospatu dira: patenteak, marketina, branding-a, kudeaketa, nazioartekotzea, cloud computing, merkatu berriak, gaitasun berritzaileak, salmentarako teknikak, azkarrago berritzeko metodologiak eta tresnak, proiektuen kudeaketa...



## BAZKIDEEN EKIMEN BERRITZAILEAK

Gure bazkideen ekimenean lagunduz. 60tik gora.

### BERRIKUNTZAREN KULTUR AZTERKETA

2015eko Berrikuntzaren Kultura Indizea, Kalitatearen Espainiako Elkarteak (AEC) egina eta, Euskadin, Euskalitek eta Innobasquek lagundua. 5 euskal enpresek hartzen dute parte, hots: ZIV, Nem Solutions, Gerdau, Gamesa eta Vicinay.

AEC, Euskaliten eta Innobasqueren arteko akordioa izenpetzea ekimen hori bultzatzeko.

“Berrikuntzaren Kultura erakundeetan” Euskaliten Kudeaketa Aurreratuaren Europar Astea.

### “MARKETAN BERRITU, BERRITZEKO MARKAK” JARDUNALDIA

Bilbon, Bizkaia Design Week 2015, AZK eta Mondragon Unibertsitatearekin batera.



### ELKARLANEAN

Bizkaiko Foru Aldundiaren planean parte hartzea enpresa bizkaitarren artean berrikuntza eta lankidetzazko sustatzeko.

**Lankidetzazko dihardute:** Metaleko Enpresen Bizkaiko Federazioa (FVEM), Eraikune, Durangoko Mankomunitatea, Hegan, ESLE, Azaro Fundazioa, BEAZ eta Innobasque.

### VENTURE CONTEST EUSKAL VALLEY

Wimi5, Joinup Taxi eta Boletus inbertsio-lehiaketaren irabazleak.


### BASQUE PROJECT MANAGEMENT KOMUNITATEA

### ERTZAINZAREN BERRIKUNTZA PLANA

Eta abar...


## LEKANDENE 2015

Berrikuntza irekiko gunea, bertan, hasiera batean, 17 bazkide ingurune experimental bat garatzen ari dira.



### NODRIZA

“Quick wins”-aren bitartez berrikuntza espreseko metodologia bat sortzen duen lankidetzazko berrikuntza-taldea.



### IMPACT X BILBAO

Bilbao Shapers Hub, mundu osoan zehar 450 nodoz eta 5.300 “shaper-ek” osatutako komunitatearen sorrerari bide ematen dioena.



**Blanca Alarcia**

Vicrila-ko Estrategia Korporatiboko zuzendaria

“Lehiatzeko modu bakarra negozio-eredua bezeroen eta merkatuen behar aldakorretara egokitzea da, produktuaren berrikuntza edo berrikuntza teknologikoa erraz kopiatu baitaiteke eta lehiakortasun-abantailak iragankor bihurtzen baititu.”



**Josean Borge**

InnovUp-eko CEO eta sortzailea

“Enpresek, egun, arrakastaz berritzeko duten modu bakarra beren erakundetik kanpo talentuak aurkitzea eta haiekin lankidetzan aritzea da. Pertsona adimentsu guztiek ez dutela gure enpresan lan egiten jabetu behar dute. Eredu horren arrakastak berrikuntza-eredu itxiek azaltzea lortzen ez duten anomaliak azaltzeko gaitasunean datza.”



**Jose Ramón Ipiñazar**

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko Berrikuntza Zerbitzuko Burua

“Lankidetzazko lehiakortasuneko oinarritzko estrategia da, zailtasunetatik salbuetsita egon ez arren enpresen mugak gainditzea ahalbidetzen duena.”



**Cristina Alberdi**

Tecnaliako Marketineko zuzendaria

“Ezagutzen ez dena ez da maitatzen. Berrikuntzan erreferente izateko, egiten dugunaren emaitza zabaltzea egin behar dugu.”



# Edukiak:

Euskal berrikuntza barnean eta kanpoan kokatuz.

**Innobasque:** Euskadiko berrikuntzaren erreferentziako komunikabidea.

## KOMUNITATEA SORTUZ...



Jarraitzaileak  
**37.000**  
gizarte-sareetan



**Irismena**  
**372.000 bisita** web orrietara  
**1.527 milioi pertsonako**  
**audientzia komunikabideen**  
**bitartez**



**Erreferentzialitatea**  
**3 Trending Trending**  
**Topic Espainian:**  
#global2014,  
#global2015 eta  
#FLLUEuskadi  
**15 Trending Topic**  
**Euskadin**




5 interakzio eduki  
bakoitzeko

**5.198 inpaktu**  
**komunikabideetan,**  
%40 irismen  
estrategikoko  
komunikabideetan

## ...EDUKI GARRANTZITSUENekin

*Inbound marketing*-eko kanal anitzeko estrategia baten bitartez, Innobasquek eduki garrantzitsuak sortzen eta banatzen ditu.



### Twitter

· 15.578 jarraitzaile.  
· Erreferentzialitatea %50 gehitu da.  
900 zerrendatan sartuak.



### Facebook

4.858 jarraitzaile. %7 +



### LinkedIn

12.053 jarraitzaile. %25 +



### Slideshare

377.809 bistaratze. %228 +



### Google+

%150 + inprimaketa-kopuruari dagokionez



### YouTube


3.546 eduki-ordu bistaratu. %344 +  
bideo konpartituetan

# Berrikuntzaren Euskal Sistemari Bultzada



## Zer da

Zientzia, teknologia eta berrikuntza politiken diseinu, ezarpen eta ebaluazioari laguntza estrategikoa eta elkarlana euskal I+G+b-aren nazioartekotzean.



## PROIEKTUAK

## BERRIKUNTZA-POLITIKAK

## EUSKADIKO ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA PLANA 2020 (EZTBP/PCTI)

Ongizatea, hazkunde ekonomikoa eta enplegua ikerketaren eta berrikuntzaren bitartez hobetzeko, fabrikazio aurreratuan, energian, biozientzian/osasunean eta 4 aukera-lurraldetan, hots, elikadura, habitat hiritarra, ekosistema eta industria sortzaileak eta kulturalak, ardaztutako espezializazio adimenduneko estrategian oinarrituz.



Eusko Jaurlaritzaren zuzendaritzapean, Innobasquek parte hartzen du:

**Diseinuan**, prestaketan elkarlanean arituz



**Gobernantzan**, honako hauetako kide gisa:

- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Kontseilukoa
- Sailen arteko Batzordekoa



**Hedapenean**, pilotaje-taldeen eta lan-taldeen bitartez.



**Ebaluazioan**, zientzia, teknologia eta berrikuntza ebaluatzeko eredu berri bat sortuz, horretarako, Indizea eta RESindex-en sortutako ezagutzaz baliatuz eta honako hauek barne hartuz:

- Estrategia: EZTBP
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistema

## ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAREN EUSKAL SAREA (ZTBES/EVCTI)

ZTBES-ren berrantolaketa espezializazio, bikaintasun eta merkatuarekiko hurbiltasun-baldintzei dagokienez eragileen kokapena hobetzeko eta, baita, ikerketa-jardueraren emaitzak hobetzeko ere.

Eusko Jaurlaritzako Garapen Ekonomikoa eta Lehiakortasuna Sailaren buruzagitzapean eta Teknologia eta SPRI-ren zuzendaritzarekin lankidetzan, Innobasquek honako hauetan hartzen du parte:



150 lan-eta egiaztatze-bilera

200 pertsona prozesuan inplikatur

## NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN SEKTOREAN BERRIKUNTZA

Katilu-n parte hartzea, hau Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Ingurumen-Politikako Sailburuordetzaren, Azti Tecnaliaren eta enpresa publikoen, hots, Elika Fundazioa, Hazi eta Neiker Tecnalia, tresna da.

 <http://www.katilu.net>



Xedea

Nekazaritzako elikagaien sektorean eta landa eta itsasertzeko ingurunean berritzea.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuna sailaren **BERRIKUNTZARAKO ETA LANKIDETZARAKO BIZIRIK PLANEAN** lankidetzan aritzea sektore horretan berrikuntza eta lankidetzatza sustatzeko eta eragiteko.


## GLOBAL ENTREPRENEURSHIP MONITOR CAPV 2014

Euskal ekintzaitza-jarduera neurtzen duen txostenaren bazkide instituzionala.



## IÑAKI GOENAGA ZENTRO TEKNOLOGIKOEN FUNDAZIOA

Innobasquek kudeatu ditu gazte ikertzaileen prestakuntza zientifikora eta teknologikora bideratutako beken programak.





## INTEGRA SAREA

Euskadin Osasun-Sistemaren integrazioa azkartzen lankidetzan aritzea.



## INNOBASQUE - RUTA N DE MEDELLÍN (KOLONBIA) AKORDIOA

Jardunbide egokiak elkartrukatzeko eta Euskadiko eta Kolonbiako berrikuntza-ekosistemak elkartzeko.



## EUSKAL I+G+b-AREN NAZIOARTEKOTZEA

I+G+b-aren finantzaketarako europar programetan, bereziki, Horizonte 2020 programan, ZTBES-ko enpresen eta eragileen parte-hartzea sustatzea.


### INNOBASQUE, ENTERPRISE EUROPE NETWORK-EKO (EEN) KIDEA

Beaz, Spri, Bilboko, Arabako eta Gipuzkoako Merkataritza-Ganberekin batera. Sare horrek informazioa, orientabidea, prestakuntza eta bazkide europarrak bilatzea eskaintzen du.

 **WWW** <http://www.eenasbasque.net>

### EUSKAL I+G+B-AREN KOADERNO ESTRATEGIKOA EUROPA 2014-2020AN

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren nazioartekotze-estrategia diseinatzea, Horizonte 2020an parte hartzeko helburuekin eta horiek lortzeko laguntza-zerbitzuak eskainiaz. Spri-rekin batera eta Eusko Jaurlaritzaren lidergoarekin.



Aurkezpen publikoa  
**500**  
pertsonek aurrean.



QR

Deskargatu 2014-2020 koaderno estrategikoa



INFORMAZIO-JARDUNALDIAK:

I+G +b-ko PROGRAMA EUOPARRETAN PARTE HARTZEKO BEHATOKIA

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) enpresek eta eragileek Horizon 2020an duten kokapen-diagnostikoa. Bazkideak bilatzen laguntzen du.




HORIZONTE 2020 PROGRAMAN EUSKAL PARTE-HARTZEAREN TXOSTENA


2014-2015ean, Euskadik 118 milioi euro lortu zituen.




H2020 PROGRAMAN EUSKAL PARTE-HARTZEAREN EMAITZA OROKORRAK




PARTE-HARTZEAREN BILAKAERA



Aurreziako datuak 2015erako.



15 INFODAY honako gaiei buruz:





### Leire Zaballa

Haziko Landa-Eremuko Emakumeen Batzordeko Idazkaritza Teknikoa

“Landa-eremuen garapenean emakumeen papera giltzarri eta eraginkorra da eta nekazaritzako elikagaien euskal sektorean aldaketa- eta eraldaketa-prozesuan giltzarri dira. Funtzio hori sustatzeko, Katilu-ren bitartez, landa-eremuko emakume ekintzaileak eta enpresariak ikusgai bihurtzea errazten da.



### Nerea Leal eta Mónica Rodríguez

DynaKin-eko bazkide eratazleak

“ERA-NET sareak eta proiektuak, gurea bezalako enpresa txiki baina berrikuntza-potentzial handikoarentzako, European sartzeko ateak dira. Horrek I+G+b-ko proiektuak garatzea ahalbidetu digu beste eskualde eta herrialdeetako antzeko enpresek lankidetzan.”



### Iñaki Aranburu

IK4 Research Alliance-ko presidentea

“Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen Dekretua, berrantolaketa bat baino gehiago, gure ikerketa industriaren eta euskal enpresen ehunaren beharrek gehiago lerrokatzea bideratutako bilakaera da.”



### Jesús Peña

Eusko Jauriaritzako Lehendakari Idazkari Nagusia

“Euskadi 2020 EZTBP herrialde osoaren ekimena da. Horregatik, Jauriaritzak hedatu dadin hasierako bultzada eman dio, ondoren, guneak sortuz enpresa eta eragile berritzaileak esperientziaz eta ezagutzaz dagokien lidergoa berenganatzen joan daitezten.”

## ETE TRESNA

Key Account Managers, Spri-rekin batera, hazkunde orokorrerako gaitasun handia duten ETE berritzaileentzako finantzaketa-programa honetan, eskaintzen dituzten produktuak edo zerbitzuak merkatura ahalik eta lasterren iritsi daitezten.



euskal enpresa parte hartzen

25

19



Innobasqueren babesarekin

## ERA-NET

Herrialde eta eskualde europarren sareak lankidetzak-akordioarekin, I+G+b-ko proiektuetan, eremu desberdinetan lankidetzak transnazionalak, enpresen parte-hartzea, bereziki, ETEena, bultzatzeko.



### MANUNET

Fabrikazio aurreratua. Euskadi dago programa honen buruan. Innobasquek koordinatzen du eta 14 herrialdek eta 11 eskualdek osatzen dute

[www http://www.manUNET.net](http://www.manUNET.net)



### EUROTRANSBIO

Bioteknologia

[www http://www.eurotransbio.eu](http://www.eurotransbio.eu)



### M-ERANET

Materialak

[www http://www.m-era.net](http://www.m-era.net)



### ENT III

Garraioa

[www http://www.transport-era.net](http://www.transport-era.net)

## I+G+B-KO NAZIOARTEKO PROIEKTUEN KUDEAKETA IKASTARO AURRERATUKO 2 EDIZIO

Proposamenen arrakasta bermatuko duten profesional gaituak prestatzeko.



# Eraldaketa sozio-ekonomikoetarako dinamikak



## Zer dira

Ekimen berritzaileak Euskadiko erronka sozioekonomikoari erantzuteko eta BPG, enplegua eta bizi-kalitatea sortzen laguntzeko.

### Efi-osasuna

II Crowdsasuna  
Gosasun

### Fabrikazio aurreratua

Espezializazio adimenduneko estrategiaren lehentasun horretan pilotaje-taldean parte hartzea.

### Eko-berrikuntza

Calor proiektua  
BWater  
INNvest / Invest Konekta sarea  
Cleantech NOW!

### Laugarren Sektorea

Enpresen Gizarte Erantzukizuneko Euskal Estrategia  
Giza Eskubideak balioztatzeko tresna

### Eredu eraldatzaileak

Ekonomia zirkularra  
Lankidetzazko ekonomia




Eraldaketa  
sozio-  
ekonomikoetarako  
dinamikak



## Eredu eraldatzaileak

Eredu sozioekonomiko berriak gai zehatzei buruzko proiektuak, hala nola, ekonomia zirkularri eta lankidetzazko ekonomiari buruzkoak, garatzeko.



### EKONOMIA ZIKULARRA

Baliabideen kontsumotik bereizitako garapena xede duen eredua.

1. *Nola landu ekonomia zirkularra Euskadin*
2. *Aukerak identifikatzea. Kontsumo ondorengo ehungintza-proiektua.*

*Sustapen-taldea: Iberdrola, Ormazabal, MBN Comunicación, Koopera, Lantegi Batuak, Kaiku, Mondragon Korporazioa, Azaro Fundazioa eta Innobasque.*


### ICOT 2015, International Congress on Thinking.

Mundu-mailako pentsamenduko gertaera nagusia, COAS-ek eta Tuinnovas-ek antolatua. Innobasquek aldi berean antolatu zuen eragin-eremua enpresaren eta negozioen munduan. Talentu, sare, ekonomia zirkular eta lidergorako eredu berrien ikuspegitik.

 [www.icot2015.com/es](http://www.icot2015.com/es)

## Fabrikazio aurreratua

Fabrikazio aurreratuko kontzeptu berriak sustatzea hura euskal ekonomiaren oinarritzat finkatu dadin.



### Proiektuak

Fabrikazio Aurreratuko pilotaje-taldea hedatzeko parte-hartzea eta Idazkaritza Teknikoa (Spri eta CIC Margune-rekin batera), lankidetzaz publiko/pribatuko ingurunea.

Pilotaje-taldea: Eusko Jaurlaritza, Spri, CIC Margune, IK4 Research Alliance, Tecnalia, Mondragon Unibertsitatea, ACICAE, AFM, Energiaren Klusterra, Gaia eta Innobasque.

## Laugarren Sektorea

Sektore publiko, pribatu eta gizarte-sektorearen elkargunean kokaturiko erakundeak eta negozio-ereduak.

30 erakunde baino gehiagorekin lankidetzaz Enpresen Gizarte Erantzukizuneko Euskal Estrategian.

Euskadiko energia-sektorearen hornidura-katean Giza Eskubideak balioztatzen dituzten tresna, The Rights Factory-rekin batera.



# Eko-berrikuntza

Eraldaketa sozio-ekonomikoetarako dinamikak

## Zer da

“Green Economy-ren” aukerak (ingurumenari dagokionez iraunkorra den hazkunde-eredua) Euskadi energiaren eta baliabideen kontsumo txikia duen gizartea izan dadin, pertsonen bizi-kalitatea handiagotuz eta enpresen lehiakortasuna hobetuz.

## PROIEKTUAK

### CALOR PROIEKTUA

Balio erantsi handiko soluzioak euskal industriako ekoizpen-prozesuetan galtzen den (kontsumitutako energiaren %50era artekoa) hondar-beroaren berrerabilera eraginkorrerako.



Especializazio adimentsuko estrategiarekin lerrotatuta: Basque Industry 4.0 eta Energibasque 2.0.an sustatutako ekimen estrategikoa.



#### Parte-hartze handia:

eskaintzako 60 eragile eta eskariko 19 eragile mobilizatuak



#### Europarekin konektatuta:

Europako Batzordeak eta SPIRE-k sustatutako industria iraunkorraren Parteneriatu Publiko Pribatura gehitua

### BWATER ITUNA

Uraren sektoreko 9 ETEren arteko ituna, ura nazioarte-mailan merkaturatzeko soluzio berritzaileak finkatzeko lankidetzan dihardute. 2015eko ekainean, horren kudeaketaren erantzukizuna Aclima-ri transferitu zitzaion.




Bilboko Uren Partzuergotik sakabanaturik dauden hiriguneetan hondakin-urak kudeatzeko proposamena aurkeztzen da.

Esfera europar proiektuan Akitania, Nafarroa eta Errioxarekin parte hartzeko proposatua.

## INNVEST SAREA


Inbertsiogileak eta finantzatzaileak ekintzailetza berritzaileko proiektuekin harremanetan jartzen ditu negozio- eta enplegu-aukerak erne daitezzen.

 [www http://www.redinvest.com](http://www.redinvest.com)



## INNvest Konekta

Ekintzailetza bultzatzeko ekosistemako eragileen arteko topaketak eta ekintzaile berritzaileei beharrezko baliabideetara sarbidea errazteko soluzioak aurkitzeko inbertsioa/finantzaketa.




## CLEANTECH NOW!

2. ed. 2014an, Donostian. CAF-en laguntzarekin

3. ed. 2015ean, Gasteizen: Tubacex-en laguntzarekin

Berrikuntza irekiko lehiaketa eta tailerra; bertan, 16-23 urte bitarteko gazteek teknologia garbiekin eta ekonomia zirkularrarekin lotuta dauden benetako erronkak ebazten dituzte.



### Cristina Oyón

SPRI-ko ekimen estrategikoen arduraduna

“2020 ZTBP-eko espezializazio-eremuetako lankidetzak publiko pribatuko guneak ingurune publikotik babestu behar diren ekimenen adibideak dira.”



### Nuria Gisbert

CIC EnergiGUNE-ko zuzendari nagusia

“Industriak planteatutako erronkak ebazteko ahaleginak bateratzen dituzten ekimenen aurrean gaude, esate baterako, hondar-beroa aprobetxatzeko.”



### Antonio Nolasco

FYM-Italcementi Group-eko Añorgako lantegiko (Cementos Rezola) zuzendaria

“Eko-berrikuntzako ekimenetan parte hartzeak prozesu industrialak iraunkorragoak bihurtuko dituen soluzio berritzaileen garapenean lan egitea ahalbidetzen du.”



### Mikel Huizi

Zabalgarbiko zuzendari nagusia

“Hondar-beroa energia-iturri iraunkor gisa berri aprobetxatzeak energia-pobrezia murrizten lagun dezake.”



# Efi-osasuna

Eraldaketa sozio-ekonomikoetarako dinamikak



## Zer da

Osasuna lehiakortasunaren eta ongizatearen iturri Euskadin:

- Gehiago eta hobeto bizitzeko
- Ingurunean balio ekonomikoa sortzeko
- Osasun-sistemaren iraunkortasunari laguntzeko

Osasun-Sistema hedatua sustatuz, non, pertsonak eta haien inguruneak norbanakoaren osasunerako faktore erabakigarriak izango diren.

## PROIEKTUAK

### II CROWDSASUNA


Taldeakako finantzaketarako (*crowdfunding*) ekimena Euskadiko biztanleriaren osasuna eta bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duten proiektu berritzaileentzako.



### GOSASUN

Bizimodu osasuntsuko ohiturak hartzea sustatzen duen mugimendu sozioekonomikoa, batez ere, 3 ardatzen inguruan, hots, elikadura, ariketa fisikoa eta osasun emozionala.

Hartzen ditugun ohiturak gure osasunerako erabakigarriak izango dira, osasun-sistema eta baldintzatzaile genetikoak beraiek baino eragin handiagoa izango dutenak. Gosasun-ek ingurune (komunitarioak, lanekoak eta hezkuntzakoak) osasungarriagoak sustatzen ditu mugimenduak antolatutako jardueretan parte hartuz, zeinak, kide guztien esperentziaz aberasten diren.





## Elikadura osasungarria vending-en:

1. NAOS estrategiaren nutrizio-irizpideen arabera osasuntsuak diren produktuen, gutxienez, %50aren eskuragarritasuna sustatzea vending makinetan.
2. Ordu artean hartzen den snacka osasungarria izan dadila sustatzea.



20  
erakunde konprometituta

3  
gida  
argitaratuta



## Sentsibilizazio-kanpainak

Sentsibilizazio-kanpaina pertsonen euren lantegietan osasuna hobetzen lagunduko dieten keinu txikiak egitea sustatzeko, egoneko bitzta saihestuz.



WWW <http://www.gosasun.net>



### Blanca Usoz

BBVA-ko Laneko Medikuntza arloan espezialista



“Ideiak edozein alorretan ager daitezke, baina ez da nahikoa. Gosasun-ek zabaldu, konpartitu eta bultzatu egiten ditu beren xedea lor dezaten eta duten funtzioa bete dezaten.”

### Edurne Jiménez

Athlon Koop. Elkarteko Osasun Programetako arduraduna



“Izaera desberdinetako erakundeen arteko lankidetzak ezinbestekoa da bizimodu osasungarria sustatzeko.”

### Concha Castells

Bizkaiko Osasun Publikoko eta Adikzioetako zuzendariordea. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila



“Gure osasunari dagokionez hartzen ditugun erabakiak ez dira banakako aukera soilak, baizik eta, horren gain eragiten duen testuinguru aldakorrari gizarteak ematen dion erantzunarekin lotuta daude.”

### Bittor Rodríguez

Dietista-Nutrizionista, UPV/EHU irakasle ikertzailea




“Osasuna sustatzeko ekintzen hedapena ordainezina da, gizarteak eta osasun-arloko profesionalak ekintza desberdinen berri izan dezaten laguntzen baitu, inspiratuz eta ilusionatuz.”

## e-HEALTH BILBAO

E-salud-en biltzarra osasun-arloko profesionalen artean osasunari aplikatutako teknologien erabilera sustatzeko. Ideable Solutions, Bizkaiko Udalak eta Innobasquek antolatuta.



# Gizarte-Berrikuntza



## Zer da

Gizarte-eskariei eta -erronkei erantzuteko lotura berritzaileen emaitza da. Balio publikoa elkarrekin sortzea du xede erantzukizun-kidetzaren bitartez eta lurralde bateko berrikuntza-gaitasun guztiak aktibatuz.

## PROIEKTUAK



### LIBRO BLANCO DE DEMOCRACIA Y PARTICIPACIÓN CIUDADANA

Eusko Jaurlaritzaren ekimena, Innobasquerekin batera, diseinu, hedapen eta jarraipenerako, gai publikoetan gobernantza eta herritarren partaidetza eredu berria sortzeko helburuarekin.



### ELKARLANEKO ZUZENBIDEA

Gatazkak konpontzeko metodo alternatiboa, berritzailea, elkarlanekoa eta adiskidetsua da, baina, batez ere, defentsa juridikoa eta justizia printzipio eta balio jakin batzuen arabera ulertzeko modu berri bat.



### BASQUE SOCIAL INNOVATION

Gizarte-berrikuntzaren erreferentzia-esparrua zehaztea Euskadin.

**Elkarlan sariak** gizarte-erronken ebazpenen herritarren parte-hartzea sustatzeko.



## EUROPEAN SOCIAL INNOVATION COMPETITION

Europako Batzordeko II. European Social Innovation Competition lehiaketan lankidetzatza. Gizarte-ekintzaitzako proposamen berritzaileen bitartez enpleguan berrikuntzak sartzeko konponbiderik onenak biltzen ditu.



1.254  
proposamen

30  
finalistek mentoring-a jaso zuten  
Bilbon

## GIZARTE BERRIKUNTZAKO LIDERGOARI 2 ASIAR SARI

World CSR Congress-ek eta Asian Confederation of Businesses-ek emanak.



Politika publikoak eraikitzen laguntzeko ekimenik onena.



Gizartea mobilizatzeko ekimenik onena.

## HERRI LABORATEGIA

Komunitatea ikaskuntzarako ingurune gisa garatzeko udalerrien eta erakundearen sarea.

UmHerri 2014 eta UmHerri 2015 jardunaldiak komunitatea, ikaskuntza eta tokiko politikak lotzen dituzten esperientziak ezagutzera emateko.



Haurren Hiriaren inguruan, tokiko eragileei  
Prestakuntza

## ENPRESAK ETA GKE JARDUNALDIA

Itun estrategikoak eta lankidetzarako eta garapenerako eredu berri bat sortuz.

## ERAKUNDEETAN ADINA KUDEATZEA

Jazarpen eta Diskriminazioaren Euskal Behatokiarekin eta Eusko Jaurlaritzako Enplegua eta Gizarte Politika Sailarekin batera.

Jardunaldiak Madril, Bartzelona, Santander eta Donostian, Erakundeetan Adina Kudeatzeko Gidaliburua aurkeztuz.



### Lorena Fernández

Deustuko Unibertsitateko Nortasun Digitaleko zuzendaria



“Erraldoi baten sorbaldara igota dagoen nano batek erraldoiak berak baino harantzago ikus dezake.”

*Robert Burton*

Elkarlaneko ezagutzak gora gaitzala

### Jon Azua

Enovating Lab



“Berrikuntza estrategikoa: negozio-ereduak berriz hausnartu, gizarte-beharrak konponduz, enpresa-gizartea balio elkarlanean sortuz.”

### Aizpea Otaegi

Elhuyar-eko koordinatzaile nagusia



“Komunitate gisa ditugun erronkei erantzuteko ezinbestekoa zaigu, herritar eta eragile gisa, artikulatu, ahaldundu eta inplikatu gaituzten dinamika eta prozesuak sustatzea eta horietan parte hartzea.”

### Javier Bikandi

Eusko Jaurlaritzako Herritarren Arreta, Berrikuntza eta Administrazioaren Hobekuntzako zuzendaria



“Gobernu bat ez da legitimatzen duen eraginkortasunagatik eta efizientziagatik soilik, baizik eta, gobernatzeko duen moduagatik; eta, gobernatzerakoan, ezinbestekoak izango dira etika, gardentasuna, herritarren parte-hartzea eta gizarte zibilarekin lankidetzatza.”

# Konektatuta gaude

HONAKO HAUEN GOBERNU-ORGANOETAN:

1 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Kontseilua

CVCTI

2 Tecnalía

tecnalía inspiring Business

3 IK4 Research Alliance

IK4   
Research Alliance

4 Adimen Emozionaleko Partzuergoa

 Consorcio de Inteligencia Emocional

5 Euskalit

KUDEAKETA AURRERATUA  
**EUSKALIT**  
GESTIÓN AVANZADA

6 Iñaki Goenaga Zentro Teknologikoen Fundazioa

  
Fundación Centros Tecnológicos Iñaki Goenaga

7 Berrikuntzarako Errioxako Fundazioa

 FUNDACIÓN RIOJANA PARA LA INNOVACIÓN

8 Eusko Jaurlaritzako Euskadiko Merkataritzako Aholkularitza Batzordea

 EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

9 Ikerbasque

**ikerbasque**  
Basque Foundation for Science

10 The Basque Center for Applied Mathematics (BCAM)

**(bcam)**  
basque center for applied mathematics

11 The Basque Center on Cognition, Brain and Language (BCBL)

**bcbl**  
BASQUE CENTER ON COGNITION, BRAIN AND LANGUAGE

12 Gipuzkoa Berritzen

 BERRITZEN

13 BIDC Bilbao Bizkaia Design Council

**BIDC**  BILBAO BIZKAIA DESIGN COUNCIL

14 Social Innovation Exchange (SIX)

**six** 



## HONAKO SARE HAUETAN:

### Munduan:

World Economic Forum-eko Global Shaper-ak

i20 Institute for Large Scale Innovation (ILSI)

Ruta N de Medellín (Kolonbia)

Ashoka

Iberoamerikako Idazkaritza Nagusia (SGIB)

Global Entrepreneurship Monitor (GEM)

TCN, Transatlantic Cities Network

### Europar:

ERAnet

Enterprise Europe Network

i2 network Euskadi-Gales

Glasgow-ko Unibertsitatea (Erasmus +)

Europe Tomorrow

Sustainable Process Industry through Resource and Energy Efficiency (SPIRE PPP)

World Café Europa

### Euskadin:

Circular Basque

Elkarlanean

Elkarlan Zuzenbideko Euskadiko Elkarte

Innovalan

Arbela

Red Espa

Orkestra, Lehiakortasunerako Euskal Institutua

Denbbora Sarea

Basque Social Innovation

### Espainian:

Kalitaterako Espainiako Elkarte

Espainiako Gizarte Berrikuntzako Sarea

Zientzia eta Teknologiarako Espainiako Fundazioa (FECYT)

Bankinter Fundazioa

Berrikuntzarako erakundeak foroa

## 2014 ..... 2015

### TOPAKETAK INNOBASQUEN

### Izaera

ELGE	Nazioartekoa
Aysen ,Txileko ordezkari	Nazioartekoa
Vine Trust Walsall & Accord Group ordezkari, Erresuma Batua	Nazioartekoa
Txile-La Araucanía ordezkari	Nazioartekoa
Kolonbiako ordezkari	Nazioartekoa
Polonia- Opole ordezkari	Nazioartekoa
Costa Ricako ordezkari	Nazioartekoa

### TOPAKETAK INNOBASQUEN

### Izaera

ETY Dinamics India	Nazioartekoa
Kanarietako ordezkari	Estatukoa
O higgins e Infyde Eskualdeko Gobernu	Nazioartekoa
Demola Finlandia	Nazioartekoa
Kroaziako ordezkari	Nazioartekoa
Kolonbiako ordezkari	Nazioartekoa
Sevillako ordezkari /FAECTA	Estatukoa
Encuentro Internacional Javeriano Nazioarteko Topaketa (Kolonbia)	Nazioartekoa
Txileko ordezkari	Nazioartekoa
Costa Ricako Gobernuko ordezkari	Nazioartekoa
Terra Venture Partners - Israel	Nazioartekoa
Valentziako ordezkari (IVALE)	Estatukoa

### KANPORA BISITAK

### Izaera

Ruta N. Medellín (Kolonbia)	Nazioartekoa
Pontificia Universidad Javeriana ordezkari (Kolonbia)	Nazioartekoa
SIX Summer School. Bombay (India)	Nazioartekoa

# ZER IKASI DUGU

# 12

berrikuntza-  
ikasgai gure  
esperientziatik

Berrikuntza modu desberdinetara uler daiteke eta berrikuntzaren definizioa ere ez da bakarra. Guretzako **berrikuntza** norbanako, enpresa eta herrialdeok erdietsi nahi dugun gure etorkizun hobea eraikitzeke etengabeko gaitasuna da. **John Kao jaunaren definizioa da; integratzailea eta lortu nahi dena erdiesteko asmoa adierazten duena dela deritzogu.**

Berrikuntza gizarte-aurrerapenaren eta oparotasunaren eragile gisa ulertzen dugu, Euskadiko gizarte-erronkak eta erronka ekonomikoak eta ingurumenekoak ebazteko konponbideak eraikitzeke giltzarri den bidea. Horregatik, erronkenezako konponbiderik onenak eraikitzeke, berrikuntzaren dimentsio desberdinak modu eraginkorrean konbinatu behar dire,

# 01

**Berrikuntza erdietsi nahi dugun gure etorkizun hobea eraikitzeke bidea da**

bai euren ezaugarrien ikuspuntutik (teknologikoa, ez teknologikoa, gizarte-...) bai bere iturburutik (erakunde pribatuak, publikoak, gizartea). Berrikuntza guztioi dagokigu. Ahaleginak, jarduerak eta emaitzak konbinatzea eta lerrokatzea izango da herrialde gisa etorkizun iraunkorra bermatuko digun bakarra.

Berrikuntza, hura erdiesteko xedeei eta haren bitartekoei dagokienez, etengabe ari da aldatzen. "Berrikuntza berri behar dugu" hark ingurune aldakorrei erantzun dakien eta erdietsi nahi dugun etorkizuna etengabe eraikitzea ahalbidetu diezagun.

Innobasque-k epe luzerako ikuspegia berehalako eragin-ekintzekin konbinatzen du etorkizuneko xedeak erdiesteko. Ukiezinak sortzen ditugu, neurtzen zailak direnak, haiek eragiten dituzten onura sozialez eta ekonomikoez jabetuz.

Batzuetan, berrikuntza-proiektuen ezaugarriek, emaitzak epe luzera izango dituztenak, zaildu egiten dute eragileen tentsioari eta inplikazioari epe laburrera eustea. Beraz, ona da proiektu horiek eta epe luzerako helburuak berehalakoagoak izango diren arrakasta txikiekin konbinatzea horiek nahiz

02

## Epe luzerako ikuspegiaren eta epe laburrera izango dituen eraginen arteko beharrezko oreka

prozesuekin nahiz bitarteko emaitzekin lotuta egon.

Horregatik, baliabideen zati bat emaitza azkarrak (*quick wins*) sortzeko gai diren proiektuetara bideratzea gomendatzen da, horretarako, aurrerapen-aukera nabarmenak dituzten ekimenak aukeratuko dira. Horrela, berrikuntza-proiektuetan sartuta dauden ekipoen konfiantza, ilusioa eta legitimitatea handitu egiten dira.

Berrikuntza arriskua da eta esploraziora eta ikaskuntzara irekitako guneak eta inguru-neak erabilgarri edukitzea behar du eta, bertan, konfiantza-giroa nagusi izatea. Ziurtasuna, malgutasuna, ilusioa, irmotasuna eta ausardia giltzarri izango dira.


Berrikuntza ezin da kontrolatu ez iragarri. Proiektu berritzaileen ezaugarriek, helburuetan eta gauzatzeko moduan nolabaiteko arriskuarekin, plangintza zaildu egiten dute. Beraz, komenigarria izango da testuinguru eraginkorrakoak sustatzea, non,

03

## Berritzea arriskuak hartzea da

hasierako faseetan -ziurgabetasun handieneko faseetan- aukera-kostu txikiak edukiko dituzten ekimenak jaurti ahal izango diren. Arrisku-baldintza horiek beren gain hartzeko prest dauden ekipoak eraikitzea komeni da, prozesutik nahiz emaitzetatik balioa ateratzeko gai izango direnak. Halaber, autokritika-gaitasuna duten erakundeak eta hutsegiteen aurrean tolerantzia handia duten inguruneak ezinbestekoak izango dira.

Arriskuen eta irteera-estrategien kudeaketa egokia planteatzea ezinbestekoa izango da beharrezkoa izanez gero proiektuak birbideratzeko edota bertan behera uzteko erabakia hartzeko.



Lankidetza eraginkorra ez da berehalakoan lortzen, baizik eta, ahalegin, konfiantza eta eskuzabaltasunean inbertsio handia eskatzen duen prozesua da. Nahiz eta bide hori beti azkarrena izan ez, ambizio handiagoko helburuak erdiestea eta urrunago iristea ahalbidetzen digu.

Kooperazioak baliabideen erabilera eraginkorragoa ahalbidetzen duela egiaztatu dugu izaera desberdineko (teknologikoak, ekonomikoak, erlaziozko kapitala eta abar) baliabide berriak erakartzeko eta haietara iristeko beharrezkoak diren sinergiak eta masa kritikoa sortzen dituelako. Hori nabarmena da lankidetza konponbide berritzaileen eskaritik nahiz haien eskaintzatik datorren

Guretzako, berrikuntzaren alderdi desberdinak gehitzeko eta kooperazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko modurik onena helize laukoitza (enpresak, eragile zientifiko teknologikoak, gizartea eta administrazioa) osatzen duten osagaien arteko lankidetza sustatzea da. Horrek lana egiteko eta herrialdeko erronketara hurbiltzeko modutzat duen gaitasunean sinisten dugu, xede komun batek batu dituen eskumen, gaitasun, profil eta esperientzia desberdinak dituzten ekipoekin.

Guztiok berritu dezakegu gizartean, oro har, eragina izango duten eta hura eraldatuko duten gizarte-harreman eta lankidetzaredu berriak sortzeko. Aniztasunak sinergiak sortzeko aukera ematen digu, baita, hasiera batean aurreikusi ez zirenak sortzeko ere eta, batzuetan, hasierako xedearekin zuzenean loturik ez daudenak sortzeko ere bai.

04

## Lankidetza baliabide-iturri agortezina da

ekimenean. Alabaina, lankidetza-prozesuen hasierako uneetan zalantza- eta ziurgabetasun-sentimendu konpartitua egon daiteke, horrelako ekimenei loturik doan aurrikusgarritasunik ezak, praktikan, aurreikusitakoak baino ahalegin handiagoak eskatzen baititu. Hala eta guztiz ere, ahaleginak merezi du.

05

## Helize laukoitza, berrikuntza-prozesuen eragilea

Eraldatze-proiektuek publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren bitartez aurkitzen dute oinarri sendoa eta etorkizun oparoa, emaitzak merkatura eta gizartera modu iraunkorrean eramateko aukera gehiagorekin. Hori da Innobasque-k defendatzen duen eredua. Horregatik, lankidetza-bide berrietan sakontzen eta helize laukoitzeko kide desberdinen arteko itunak ehuntzen jarraituko dugu bai Euskadin bai handik kanpo.



**Azken urteetan, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistemako gobernantza-eredua bilakatu egin da, lidergo estrategikoa maila gorenean lortzera bideratua.**

06

## Berrikuntzaren Euskal Sistemak lidergo estrategikoa behar du maila gorenean

Zientzia-, teknologia-, ikerketa- eta berrikuntza-politikak Lehendakaria du buru, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluak aholkatuta. Organo hori honako hauek osatzen dute: Lehendakari-tzak; Eusko Jaurlaritzako Ogasun, Hezkuntza, Garapen Ekonomikoa eta Lehiakortasuna eta Osasun Sailetak sailburuek; hiru euskal unibertsitateetako errektoreek; hiru foru aldundietako diputatu nagusiek; Tecnalia-k; IK4 Research Alliance-k; Idom-ek; CAF-ek;

CIE Automotive-k; Iberdrola-k; Ikerbasque-k; Jakiunde-k eta Innobasque-k.

Horrela, sistema osoaren ikuspegia lortzen da, zatikatutako ikuspegien edo sailen ikuspegi ginetik, zientzia, teknologia, enpresa eta gizartearen arteko lankidetzak sustatuz, Euskadiko erronkak elkarrekin konpontzeko.

Behin betiko estrategia sistema osoaren eraginkortasuna, bikaintasuna eta merkatuarekiko hurbiltasuna hobetzera bideratuta dago, eragileen arteko lankidetzak sustatuz gure lurraldearen baitan nahiz handik kanpo.

**Lehenengo aldia da Euskadin espezializazio adimendunerako estrategia orokorra planteatzen dela, horretarako, prozesuko fase guztietan, diseinutik eta hedapenetik hasi eta balioztatpena, erakunde publikoen eta pribatuen parte-hartzea eta lidergoa edukiko da.**

07


## Parte hartzeak berrikuntza-politiken diseinuan, hedapenean eta balioztatzean duen garrantzia

Horren ondorioz, ikerketako eragileek euren espezializazioan aurrera egiten dute eraginkortasunean hobekuntzak bilatuz, emaitzak enpresetara eta gizartera eramateko beste eragileekin euren lankidetzak indartzeaz gain.

Horretaz gain, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileek ingurunean, tokikoan nahiz nazioartean, gertatzen diren aldaketak behatzen dituen estrategia propioa dute eta horrek ekoizpen-ehuneko eta

gizarteko behar berrietara egokitzea ahalbidetzen die.

Halaber, ikerketan eta berrikuntzan egindako inbertsioen emaitzak eta eragina neurtzeko baliozkotze-metodologia bat garatzen ari da; izan ere, "neurtzen ez dena ezin da hobetu". Garrantzitsua da azken emaitzak eta tartekoak neurtzea, prozesuak baliozkotzea eta erabaki azkarrak eta bideratuak hartzeko prest egotea, Berrikuntzaren Euskal Sistemaren beraren balio-ekarpena hobetzeko.



Gauzatutako proiektu eta ekimen gehienetan, prozesuaren ikaskuntza bera lortutako amaierako emaitza bezain garrantzitsua izan da. Ikastea, beraz, zeregin erabakigarria da.

Berrikuntza-prozesuetan sortutako ezagutza tratatzea beharrezkoa da ezagutua eta hedatua izan dadin eta ekimen berrietarako balio eta ikaskuntza bilaka dadin. Ezagutzaren eta berrikuntzaren erakunde guztiok ildo horretatik lanean jarraitu beharra dugu.

08

## Ikaskuntza berrikuntza-prozesuetan emaitza gakoa

Horretarako, ikasitakoa ahazten ikastea da lehenengo urratsa, adimena irekita edukitzea gauzak betidanik egin izan diren modu tradizionala zalantzan jartzen duten paradigma berriak onartzeko; buruko eskemak apurtzea ezagutza berri bat eraikitzen eta geureganatzen hasteko.

Berrikuntza kutsatu egiten da. Horregatik da garrantzitsua emaitzak jakinaraztea eta konpartitzea eta narratiba sendo bat hornitzea, berrikuntzan erdietsitako lorpen txikiak eta handiak barnebilduko dituen, jende desberdinarengana iritsiko dena, epe luzerako emaitzei -askotan lortzea kostatzen direnak- bidea urratuko dietenak. Aurrerapen txikiak eta handiak elkarrekin ospatu behar ditugu, arrakasta parte hartu duten erakunde eta pertsona guztiak eskuzabaltasunez konpartituz.

Berrikuntzak izan behar duen itxura gure esku dago, euskal gizarte osoaren esku. Eta, Euskadin, berrikuntzak gure hazkunde-eredua elikatzen du. Ugariak dira euren jarduera berritzailea ezagutzera emateko jarduerak sustatzen dituzten eragileak eta, ugaria ere, haien entzuleak.

09

## Berrikuntzaren kultura zabaltzea etorkizunerako inbertsioa da

Euskadik lurralde berritzaile gisa duen irudiari entzutea emateko ahaleginak itzulkin sozialak eta ekonomikoak ditu, herrialde aurreratuaren ereduarekin konpartitutako konpromisoa nabarmendu egiten duelako, Berrikuntzaren Euskal Sistemaren lorpenak aitortzen dituelako eta epe luzerako inbertsioei babesa ematen dielako, baita atzeraldi ekonomikoko zikloetan ere. Testuinguru horretan, markak berrikuntzarako aktibo bat dira eta Innobasque marka ezaguna da, Euskadi lurralde berritzaileen artean kokatzen duena.

**10** Gardentasunean eta parte-hartzean oinarritutako gobernantza-eredu berriak erabakigarriak dira konpartitutako balioaren sorrera maximizatzen. Gero eta beharrezkoagoa da Administrazioak eta gizarte zibilak erantzukizunkidetzatik elkarlanean jardutea, jarduera publikoaren eraginkortasuna hobetuko duten eta haren legitimitatea sendotuko duten elkarriketarako, negoziatorako eta akordiorako mekanismoak ezarriz.

Informatutako herritarrak trebatutako herritarrak dira. Baina informazioa argitaratzea ez da nahikoa. Informazioa modu irisgarrian eta berrerabilgarrian

## Berrikuntza Administrazioaren gobernantza hobetzeko giltzarri da

aurkeztu behar da, interpretazio gehiago hartzeko gai ez izatearen neurriraino murriztu gabe.

Bestalde, jarduera publikoan gizarte zibilaren ikuspena barneratzea aldaketarako espektatibak sortzea da eta, behar bezala kudeatu ezean, erakundeen sinesgarritasuna higatu egiten da.

**11** Europar presentzia aktiboa edukitzea ezagutza berriaren eta finantzaketaren iturri da eta, baita, herrialde berritzaile gisa kokatzeko tresna ere.

Ekonomia globalizatu batean, non, garatzeko bidean dauden herrialdeek eskari orokorreko eta produktu eta zerbitzu berrien ekoizpeneko gune gisa garrantzia hartzen duten, Europak bere lehiarako abantaila eutsi nahi die talentua erakartzeko eta ezagutza aurreratua sortzeko polo orokor gisa.

## Europak Euskadi sendotzen du eta Euskadik Europa sendotzen du

Europak, berrikuntza arloan, baliabide- eta esperientzia-sorta zabala eskaintzen du: jardunbide egokiak, kolaboratzaile potentzialak, finantzaketa publikoko programak eta abar. Euskadi ekarpen handia ari da egiten.

Berrikuntzan lider diren eskualdeekin bat egiteko helburuarekin, proiektu europarretan Euskadiren parte-hartzea eta lidergoa sendotzen ari da, Horizonte 2020 planean sortzen ari diren ekimen estrategiko garrantzitsuek eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatuz.


**12** Deskubritzeko, berritzeko eta zerbait berria sortzera arriskatzeko, beharrezkoa da izaera irekia, etorkizunean, ingurunean eta norbere gaitasunetan zein elkarlanean egindako lanaren potentzian konfiantza.

Innobasque-n baikortasun adimenduna ekosistema berritzaileetan ezinbesteko osagaia dela uste dugu eta jarrera horrekin dihardugu lanean.

## Berrikuntzak baikortasun- eta gogo-dosi handiak eskatzen ditu



# Innobasque 2016-2020







# ERDIETSI NAHI DUGUN GURE ETORKIZUN HOBEA



**TXEMA VILLATE**  
Zuzendari nagusia

Memoria hau elkarrekin, lankidetzan, konfiantzazko inguruneetan, nola berri dezagunari buruzko kontaketa da. Berrikuntzaren Euskal Agentziaren bigarren zikloari amaiera eta hirugarrenari hasiera ematen dion narrazioa da. Agentzia 2007an sortu zen belaunaldi oso batentzako proiektua izateko asmoz, amaierarik ez zuela zirudien hedapen ekonomikoa bizi arren, gure etorkizuna ziurtatuta ez zegoenaren uste osoarekin. Euskadi, bere alor guztietan, berrikuntzaren abangoardian dagoen eskualde europar bihurtu nahi genuen. Orduko ikuspegiak gaur egun ere bere horretan dirau, mugitzen gaituen ardatz bihurtuta. Erreferentziazko lurralde izatea dugu xede. Euskadi berritzaileagoa nahi dugu, berritzaileagoak izatea.

Atzean utzi dugun biurteko honetan, xede horretara hurbilduz joan gara gure mila bazkideen eta Innobasque sareko kideen eskutik. Horiekin Memoria honetan jasotzen diren proiektu garrantzitsu askotan egin dugu lan, itun publiko/pribatuen emaitza, enpresen, ezagutza-zentroen, administrazioen eta sozietateko

kideen arteko lankidetzarena. Lankidetzari esker, oztopoak aukera bihurtu ditugu, korrante orokorrekin bat egin dugu, elkarrekin gure etorkizuna eraikitzen ari gara.

Gainera, denbora-tarte horretan, Innobasque Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Ordezkaritzako Idazkaritza Tekniko gisa sendotu egin da eta horrek berrikuntzaren estrategia eraentzen duten politikak diseinatzen parte hartzeko aukera ematen digu. Eta hori gure muin elkarkorra galdu gabe, zeinaren bitartez, berrikuntzaren kultura, ideia berritzaileak ingurune aldakorretan eta globalizatueta erretzea errazten duten konexioak eragiten dituen, barreiatzen ari garen.

Lortutako emaitzek erdietsi nahi dugun gure etorkizun hobe sortzen jarraitzea animatzen gaituzte; euskal gizartearen oraineko eta etorkizuneko bizi-kalitatea hobetzen laguntzen jarraitu nahi dugu. Hori egiteko modurik onena Innobasquetik egitea da.





**innobasque**  
berrikuntzaren euskal agentzia    agencia vasca de la Innovación

Laida Bidea, 203  
Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea  
48170 Zamudio (Bizkaia)

T.: +34 944 20 94 88



[www.innobasque.eus](http://www.innobasque.eus)